# jm 07

## jarduerenmemoria

EGAB

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico y Social Vasco

# aurkezpena →

*Jardueren Memoria horretan, EAEko EGBren jardueraren alderdi ikusgarria islatzen da. Hain zuzen ere, EGBko laguntzaileek eta bestelako kontseilariek nahiz adituek egindako lan gogorraren eta lehiaren ondoriozko ondore normalizatuak bakarrik jorratzen dira.*

*Zoritxarrez, urtero gertatzen den bezala, oraingoan ere Eusko Legebiltzarrak ez digu kontsultarik egin gure intereseko gaien inguruan. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, eskabide-kopurua areagotu du, 23 eskabide, hain zuzen.*

*Halaber, 2007. urtean sei irizpen igorri ziren, bi irizpen gehiago urte berean landu eta 2008. urtean igorri arren.*

*Gainerako eskabideei dagokienez, bost eskabidetan ez zen lortu inolako adostasunik, eta beste bost eskabide baztertu egin ziren arrazoi teknikoen ondorioz.*

*Eztabaiden jarduera dela medio, "Industria Politika Euskal Herrian" gaia jorratu ahal izan zen, industria politikan adituak diren Europako espezialisten parte-hartzearekin. Eztabaidak jadanik finkatuta zeudela uste genuenean, Gizarte Zibilarekin zerikusirik ez duten irizpideak zati batean bereizi eta horren bilakaera geldiarazi dute.*

*2007. urtean, EGBk nazioarteko gaietan esku hartzeko nahia agerian utzi zen, Nazioz Gaindiko Sare Atlantikoan dugun parte-hartzea eta Akitaniako CESRren aldebiko lankidetza aintzat hartuta.*

*Gure EGB gidatzen duten erregela negatiboen desegokitzapena jasaten ari gara. Hala ere, horiek aldatu eta Gizarte Politikoaren eta Zibilaren bilakaerara egokituko direla iragarri da.*

*EGBren funtzionamendu-arauak modernizatzea ezinbestekoa da. Lehenaldian geratzeak, elkarbizitza pertsonala dela medio, ondore negargarriak ekarriko lituzke.*

*Oro har, kontseilari eta aditu gehienek ekintzaren esparrua saneatzeko nahia agerian utzi dute.*

***ANTXON LAFONT MENDIZABAL***

**Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Lehendakaria**

L.G.: BI-2458-08

# ziurtagiria →

*Javier Muñecasek, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Idazkari Nagusiak,*

*ZIURTATZEN DU:*

*Lehenik eta behin, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Bilkura Osoak 2008ko ekainaren 11an egindako saioan, besteak beste, hurrengo erabakia hartu zuela:*

*"2007. urterako Euskadiko Ekonomia et Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jarduera Txostena bertaratutako guztien aho batez onartzea."*

*Bigarrenez, argitalpen honek Batzordearen Bilkura Osoak aipatu erabakian onartutako Txostenaren edukia oso-osorik biltzen duela.*

*Eta, ondorio egokietarako, sinatzen dut Bilbon, 2008ko ekainaren 12an.*

***JAVIER MUÑECAS HERRERAS***

**Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Idazkari Nagusia**

# aurkibidea →

1

1. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA
- → Historia
- → Zer da?
- → Nork osatzen du?
- → Bere funtzioak

2. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI DAGOZKION LAN-BATZORDEEN ETA ORGANOEN KONPOSIZIOA
- → 2007an Bilkura Osoaren konposizioa
- → 2007an Batzorde Iraunkorraren konposizioa
- → 2007an garapen ekonomikorako batzordearen konposizioa
- → 2007an gizarte-garapenaren analisirako batzordearen konposizioa
- → 2007an txosten sozioekonomikoa egiteko batzordearen konposizioa
- → 2007an turismoaren arloan Akitaniarekin lankidetzan jarduteko lan-taldearen konposizioa

3. 2007AN EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEAREN ORGANOEK EGINDAKO SAIOEN LABURPENA
- → Euskadiko EGABren Bilkura Osoak egindako saioak
- → Euskadiko EGABren Batzorde Iraunkorrak egindako saioak
- → Euskadiko EGABren Lan Batzordeek egindako saioak

2

BATZORDEAREN LEGEAN AURREZ IKUSITAKO FUNTZIOAK EGITEA
- → Batzordeak irizpena emandako gaiak
- → EAEko Egoera Sozioekonomikoari buruzko Txostena egitea.
- → Norberaren ekimenez ikerketak egitea.
- → EGABren eztabaidak

3 ERAKUNDE-JARDUERA
→ Erakunde-topaketak eta -agerraldiak
→ Kanpoko kooperazioa

4 BITARTEKO MATERIALEN ETA GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA
→ Aurrekontua
→ EGABren langileak

5 DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA
PRENTSA

6 EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO KONTSEILUARI APLIKATZEN ZAION LEGERIA

ERANSKINAK
→ Eranskin bakarra:
2007ko Auditoriaren txostena

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

1

1

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

## 1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

### Ekonomia eta gizarte batzordeen historia

Egungo Ekonomia eta Gizarte Batzordeen aurrekariak aurkitzeko lehenengo munduko guda amaitu eta berehalako urteei erreparatu behar zaie. 1919. urtean Lanaren Nazioarteko Bureau izenekoa sortu zen. Nazioarteko batzarra zen eta gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartzen zuten; lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria batera egiten zuten.

Hortik abiatuta Europan lehenengo kontzentrazio-tresnak agertuz joan ziren eta egungo Ekonomia eta Gizarte Batzordeen aitzindariak izan ziren. Lehenengo erakundea Frantzian sortu zen 1925. urtean eta geroago antzekoak eratu ziren Europako beste herrialdeetan, bereziki, bigarren munduko guda amaitu zenetik.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak bere organo gorenen artean Ekonomia eta Gizarte Batzordea sortu zuen. Izaera eta funtzioak aztertuz gero, guztietan bateragarritasun nabarmena dago: kontsulta-organoak dira eta gizarte- eta ekonomia-ordezkariak gobernuen politika ekonomikoan parte hartzea nahi dute. Era berean, horien arteko elkarrizketa eta lankidetza ahalbidetzen dute.

Halaber, Batzordeak ez du jarrera pasiborik; bere ekimenez iradokizunak eta ebazpenak planteatzen ditu eta Gobernuek kontuan hartu behar dituzte. Kontsulta-organoa den heinean, Gobernuarekiko autonomoa eta independentea da eta txostenak lotesleak ez izan arren, ustezko askotan derrigorrezkoak dira eta, kasu guztietan, kontuan hartu beharreko iritzia adierazten dute.

### Euskadiko EGAB

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Gobernuaren eta Parlamentuaren kontsulta-erakundea da eta Euskadiko politika ekonomikoan ekonomia- eta gizarte-interesek eraginkortasunez parte hartzea du helburu. Batzordeak nortasun juridiko propioa du, Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren desberdina; funtzioak gauzatzeko ahalmen osoa eta independentzia du.

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipiopean, Batzordeak aurrekontua onartu eta gauzatzen du. Finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek esleitutako zenbatekoarekin lortzen da.

Batzordeak egoitza Bilbon du. Legez 1984. urtean sortu zen eta 1995. urtearen amaieran hasi zen funtzionatzen.

→ *4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, sortu zuen eta, ondoren, beste bi legeen bidez aldatu da: ekainaren 30eko 15/1994 Legea eta, azkenekoa, ekainaren 27ko 9/1997 Legea.*

1995. urtean funtzionamenduan jarri zenetik, EGABk hiru agintaldi izan ditu bere Lehendakariekin eta Idazkari Orokorrekin. Txandakatuta izendatu dira lau urtez behin.

**Lehenengo Agintaldia (1995-2000):** lehendakaria Javier Mongelos Oquiñena (hirugarren taldeak edo talde mistoak izendatua) izan zen. Idazkaritza Nagusia Javier Hernández Bilbaoren esku egon zen, Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (CONFEBASK) izenean.

**Bigarren Agintaldia (2000-2005):** lehendakaria Rafael Puntonet del Río (Enpresaburuen taldeak izendatua) izan zen eta Idazkaritza Nagusian Manu Aramburu Olaetxea izan zuen, sindikatu-taldearen izenean.

**Hirugarren Agintaldia, 2005**tik. Lehendakaria Antxon Lafont Mendizabal da eta sindikatu-taldeak izendatu du. Idazkari Nagusia Javier Muñecas Herreras da hirugarren taldea ordezkatzen.

## Nork osatzen du?

→ Batzordea hogeita hamabi pertsonek osatzen dute eta konposizioa hurrengoa da:

1. Zortzi batzarkide, sindikatu-erakunde eta –konfederazio adierazgarrienen izenean.
2. Zortzi batzarkide, enpresa-konfederazioen izenean.
3. Zortzi batzarkide, honakoen izenean: Merkataritza, Industria eta Nabigazioaren Ganberak; Aurrezki Kutxak eta Erakunde Finantzarioak; Kooperatiban; Laneko Sozietate Anonimoak; Arrantza Erakundeak; Nekazaritza Erakundeak; Kontsumitzaileen Erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitea.



→ *Euskadiko EGABaren egoitza.*

4. Zortzi aditu prestakuntza, esperientzia eta independentzia jakinarekin.

- Batzordeak Lehendakaria eta Idazkari Nagusia du. Gainera, zerbitzu teknikoak, administratiboak eta dokumentaziozkoak ditu.

- Batzordeko kideak lau urtez behin izendatzen dira eta berrautatuak izan daitezke.

- Bilkura Osoa erabakitzeko organo gorena da. Bere funtzioen artean, besteak beste, honako hauek daude: Lehendakaria proposatzea, Idazkari Nagusia izendatzea eta lan-batzordeak sortu eta deuseztatzea, Erakundearen aurrekontuak onartzea, urteko txosten sozioekonomikoa eta jardueren txostena onartzea eta batzordeek bidalitako irizpenen aurreproiektuak, ebazpenak eta txostenak onartzea.

## Bere funtzioak

- Ekonomia- eta gizarte-politikarekin zerikusia duten lege-proiektuei buruz derrigorrezko txostena egitea, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren Legearen kasuan izan ezik.

- Gobernuaren iritziz garrantzi berezia izanik, ekonomia- eta gizarte-politikarekin zerikusia duten dekretu-proiektuei buruz derrigorrezko txostena egitea.

- Bere aginpideko arloei buruz Gobernuari proposamenak egitea.

- Bere ekimenez edo Gobernuak eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea aurreko atalak aipatzen dituen arloetan.

- Parlamentuak egindako kontsultak erantzutea.

- Gobernuak egiten duen Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko jarduera ekonomikoen plangintzan parte hartzea.

- Gobernuari eta Euskal Parlamentuari urtero txostena egin eta aurkeztea. Bertan EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko iritziak azalduko dira.

# 2. 2007an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagozkion lan-batzordeen eta organoen konposizioa

## 2.1. Bilkura osoaren konposizioa

Lehendakaria
ANTXON LAFONT MENDIZABAL

Idazkari Nagusia
JAVIER MUÑECAS HERRERAS

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioek edo Erakundeek izendatutakoak

→ *Eusko Langileen Alkartasunaren (ELA) proposamenez*
Titularrak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
JULENE GABIOLA AMALLOBIETA
GERMAN KORTABARRIA IGARTUA
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU
Ordezkoak
ALAZNE ALONSO IZURZA
JANIRE DOMÍGUEZ PÉREZ
KEPA ESTÉVEZ SÁNCHEZ
ITZIAR GABIKAGOGEASKOA ARRASATE

→ *Euskadiko Langileen Batzordeen Sindikatu Konfederazioaren (CC.OO) proposamenez*
Titularrak
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
JAIME GÓMEZ DEVESA
Ordezkoak
ANTXON TOMASENA ALZURI
FELISA PIEDRA GAO

→ *Langile Abertzaleen Batzordearen (LAB) proposamenez*
Titularra
RAFAEL IZQUIERDO SANCHEZ
Ordezkoa
OIHAN OSTOLOZA ARRUABARRENA

→ *Euskadiko Langileen Batasun Orokorraren (UGT) proposamenez*
Titularra
CARLOS TREVILLA ACEBO
Ordezkoa
RAÚL ARZA VÉLEZ

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzak (Confebask) izendatutakoak

Titularrak
AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA.
VIRGINIA MÚGICA CONDE.
FCO. JAVIER SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA.
RAQUEL ECENARRO DEL RIO.
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN.
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO.
MANUEL GUERRERO IGEA.
JOSÉ GUILLERMO ZUBIA GUINEA.

Ordezkoak
IGNACIO SAEZ DE GORBEA.
ARTURO GARCÍA SANZ.
JON BILBAO SARALEGUI.
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO.
JOSÉ MANUEL FARTO LÓPEZ.
ANA GARCÍA POLANCO.
JOSÉ Mª RUÍZ URCHEGUI.
JUAN UGARTE AGUIRREZABAL

## C TALDEA

Autonomia Erkidegoko honako sektoreek, erakundeek, entitatek eta elkarteek izendatutakoak:

- *Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberak:*
  Titularra
  JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA.
  Ordezkoa
  AMAIA ATUTXA ATUTXA

- *Aurrezki Kutxek eta Erakunde Finantzarioek:*
  Titularra
  PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO.
  Ordezkoa
  RAFAEL ARANGUREN ILARDIA.

- *Kooperatibek:*
  Titularra
  FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA.
  Ordezkoa
  JAVIER SALABERRIA AMESTI.

- *Lanerako Sozietate Anonimoek:*
  Titularra
  OLATZ JAUREGUIZAR UGARTE.
  Ordezkoa
  JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA.

- *Arrantza Erakundeek:*
  Titularra
  MIREN GARMENDIA ZEBERIO.
  Ordezkoa
  JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN GONZÁLEZ

- *Nekazaritza Erakundeek:*
  Titularra
  UNZALU SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA.
  Ordezkoa
  ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ.

- *Kontsumitzaileen Erakundeek:*
  Titularra
  JON ARIÑO GALLEGO.
  Ordezkoa
  KOLDO NABASKUES SIMÓN.

- *Euskal Herriko Unibertsitateak:*
  Titularra
  JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA.
  Ordezkoa
  MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN.

## D TALDEA

D) taldea, adituena, osatzen duten batzarkideak:
Mª LUZ DE LA CAL BARREDO.
ANTÓN BORJA ÁLVAREZ.
RAFAEL PUNTONET DEL RIO.
FELICISIMO AYASTUY SÁEZ.
IGNACIO BARRENECHEA GONZÁLEZ
JOSÉ Mª URANGA AYESTARAN.
ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
AITOR BENGOETXEA ALKORTA

2007. urtean honako ordezkapena izan zen:

Urtarrilean Juan Antonio Muguruza Goiriren ordez Patxi Sasigain Saenz de Buruaga sartu zen batzarkide titular bezala CONFEBASKen izenean.



→
*Euskadiko EGABaren Osoko Bilburaren ohiko bilera.*



## 2.2. Batzar iraunkorraren konposizioa

| Lehendakaria | Idazkari Nagusia |
| --- | --- |
| ANTXON LAFONT MENDIZABAL | JAVIER MUÑECAS HERRERAS |

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioen eta Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ | JULENE GABIOLA AMALLOBIETA |
| EDUARDO GARCÍA ELOSUA | JAIME GÓMEZ DEVESA |
| RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ | OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA |
| CARLOS TREVILLA ACEBO | RAÚL ARZA VÉLEZ |

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| VIRGINIA MÚGICA CONDE | AITOR OTAOLA DÍEZ DE ALDA |
| JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO | EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO |

### C TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde, Entitate eta Elkarte bakoitzeko honakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| JUAN LUIS MTNEZ. ORDORICA | JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA |
| OLATZ JAUREGUIZAR UGARTE | JON ARIÑO GALLEGO |
| FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA | UNZALU SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA |
| PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO | MIREN GARMENDIA ZEBERIO |

### D TALDEA

Adituak

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| FELICÍSIMO AYASTUY SÁEZ (DESDE EL 8/03/07) | Mª LUZ DE LA CAL BARREDO |
| ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA | |
| JOSÉ Mª URANGA AYESTARÁN | ANTÓN BORJA ÁLVAREZ |



## 2.3. Garapen ekonomikoa aztertzeko batzordearen konposizioa

Lehendakaria
*Batzorde bakoitzean izendatzen da.*

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioen eta Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| JULENE GABIOLA AMALLOBIETA | MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ |
| ANTXON TOMASENA ALZURI | EDUARDO GARCÍA ELOSUA |
| RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ | OIHAN OSTOLAZA ARRUABERRENA |
| CARLOS TREVILLA ACEBO | RAÚL ARZA VÉLEZ |

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO | PATXI SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA |
| AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA | ANA GARCÍA POLANCO |
| JON BILBAO SARALEGUI | VIRGINIA MÚGICA CONDE |

### C TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde, Entitate eta Elkarte bakoitzeko honakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA | |
| JON ARIÑO GALLEGO | KOLDO NABASKUES SIMÓN |
| MIREN GARMENDIA ZEBERIO | JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN |
| PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO | RAFAEL ARANGUREN ILLARDIA |

### D TALDEA

Adituak

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA | |
| ANTÓN BORJA ÁLVAREZ | |



## 2.4. Gizarte-garapena aztertzeko batzordearen konposizioa

Lehendakaria
*Batzorde bakoitzean izendatzen da.*

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioen eta Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| BIZENTE HARRIOLA ALBIZU | ITZIAR GABIKAGOGEASKOA ARRASATE |
| FELISA PIEDRA GAO | JAIME GÓMEZ DEVESA |
| RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ | OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA |
| CARLOS TREVILLA ACEBO | RAÚL ARZA VÉLEZ |

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| JON BILBAO SARALEGUI | JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO |
| VIRGINIA MÚGICA CONDE | RAQUEL ECENARRO DEL RIO |
| EDUARDO ARECHAGA CILLERUELO (Desde el 12/09/07) | |

### C TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde, Entitate eta Elkarte bakoitzeko honakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| OLATZ JAUREGUIZAR UGARTE | JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA |
| UNZALU SALTERAIN BESAGUTXIBEASKOA | ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ |
| JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA | MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN |
| FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA | JAVIER SALABERRIA AMESTI |

### D TALDEA

Adituak

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Mª LUZ DE LA CAL BARREDO | |
| AITOR BENGOETXEA ALKORTA | |



## 2.5. Txosten sozioekonomikoa egiteko batzordearen konposizioa

Lehendakaria
*Batzorde bakoitzean izendatzen da.*

Secretaria Técnica de la Comisión
LEIRE OZERIN ETXEBARRIA AND.

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioen eta Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ | JULENE GABIOLA AMALLOBIETA |
| ANTXON TOMASENA ALZURI | EDUARDO GARCÍA ELOSUA |
| RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ | OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA |
| RAÚL ARZA VÉLEZ | CARLOS TREVILLA ACEBO |

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO | PATXI SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA |
| JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO | AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA |

### C TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde, Entitate eta Elkarte bakoitzeko honakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| RAFAEL ARANGUREN ILLARDIA | PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO |
| MIREN GARMENDIA ZEBERIO | JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN |
| JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA | MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN |
| FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA | JAVIER SALABERRIA AMESTI |

### D TALDEA

Adituak

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| FELCÍSIMO AYASTUY SÁEZ | |
| ANTÓN BORJA ÁLVAREZ | |
| IGNACIO BARRENECHEA GONZÁLEZ | |
| Mª LUZ DE LA CAL BARREDO | |



## 2.6. Turismoaren arloan Akitaniarekin lankidetzan jarduteko lan-taldearen konposizioa

Batzordearen Idazkaritza Teknikoa
ARANTZA LÓPEZ DE MUNAIN ZULUETA AND.

### A TALDEA

Sindikatu Konfederazioen eta Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| KEPA ESTÉVEZ SÁNCHEZ | |
| ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA | |
| RAÚL ARZA VELEZ | |

### B TALDEA

Euskal Enpresaburuen Konfederakuntzaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ | |
| JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO | |

### C TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde, Entitate eta Elkarte bakoitzeko honakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| JOSÉ MARÍA URANGA AYESTARÁN | |

# 3. 2007an Ekonomia eta Gizarte Batzordearen organoek egindako saioen laburpena

## 3.1. 2007an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordeak egindako bilkura osoaren saioak

### 2007ko martxoaren 7a

→ Bilkura Osoak 2006ko abenduaren 19an egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.

→ EAEn segurtasun eta lan-osasun ikuskapenari buruzko Dekretu Proiektuaren irizpen-proiektua gai-zerrendatik kendu da, dagokion lan-batzordean azkenean ez baita onartu.

→ Lan- eta familia-bizia bateratzeko laguntzen Dekretu Proiektuari buruzko irizpen-proiektua baztertu egin da.

→ Euskal Herri Administrazioen eremuan lan-arriskuen prebentzioan ez betetzeagatik neurri zuzentzaileak jartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko irizpena onartu da.

→ Hausnarketa estrategikorako gaiak: ekarpenak eskatu eta tratamendua proposatzea.

→ Lehendakariak CONFEBASKen izenean etorritako batzarkide berriari (Patxi Sasigaini) ongietorria eman dio.

### 2007ko maiatzaren 23a

→ Bilkura Osoak 2007ko martxoaren 7an egindako saioari dagokion akta irakurri eta onartzea.

→ Araudiak 17.3. artikuluan xedatutakoaren babesean, kultura ekintzaileari eta enpresak sortzekoari laguntzeko Dekretuaren bigarren aldaketa-proiektuari buruzko irizpen-proiektua eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko gai-zerrendan sartzea onartu da.

→ Gizarte Baztertzearen Kontrako bosgarren aldaketaren Lege Aurreproiektuari buruzko irizpena onartu da.

→ Kultura ekintzaileari eta enpresa sortzekoari laguntzeko Dekretuaren bigarren aldaketa-proiektuari buruzko irizpena onartu da.

→ Datuak babesteko Euskal Agentzien Erregistroan izena emateko EGABren titulartasun publikoko hiru datu-fitxategi pertsonal sortzea onartzen da.

→ Batzordearen web berria aurkeztu da.

### 2007ko ekainaren 21a

→ Bilkura Osoak 2007ko maiatzaren 23an egindako saioari dagokion akta irakurri eta onartzea.

→ 2006. urteko Jarduera Txostena onartu da.

→ 2006ko Aurrekontuaren Kitapena eta ekitaldi horretako Ikuskaritzaren Txostena onartu da.

→ Prebentzio-sistemaren ikuskaritza-jarduera garatzeko besteen eta pertsona edo erakunde adituen prebentzio-zerbitzuen Erregistroa sortu eta arautzeari buruzko Dekretuaren Proiektuari dagokion Irizpena onartu da.

→ Jardunean dauden irizpen-egoeraren berri eman da. Halaber, 2007-2009 gizartean sartzeko II. Erakundeen Arteko Plana Gobernuak onartu duela jakinarazi da. Horren gainean gizarte-garapenerako batzordeak lanean ziharduen.



→ Euskadiko EGA Batzordearen osoko Bilkura.

- EGABrentzat lokal berriak bilatzeari dagokionez, lokal zehatza hautatu dela jakinarazi da eta erosteko espedienteari ekiteko Eusko Jaurlaritzaren aurrean jarduerak egingo direla adierazi da.

## 2007ko urriaren 11

- Bilkura Osoak 2007ko ekainaren 21ean egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
  2006ko Txosten Sozioekonomikoa onartu da.
- Zientzia, Teknologia eta Berriztapenaren Plana 2010 izenekoari buruzko txostena onartu da.
- Ekonomia sustatzeko laguntza-lerroak zehazten dituen Dekretuaren bederatzigarren aldaketa Dekretuari buruzko irizpena onartu da.
- Enpleguaren Erakundeen Arteko III. Planari buruzko jakinarazpena Enplegu, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailburuari bidaltzea onartu da.
- Egoitza berria erosteari dagokionez, erosketa ez du EGABk egingo, Eusko Jaurlaritzak baizik eta, ondoren, lokala Batzordeari atxikiko dio.
- Lehendakariaren informazioa.

## 2007ko abenduaren 14a

- Bilkura Osoak 2007ko urriaren 11n egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- 2008. urterako Aurrekontua onartu da.
- 2007., 2008. eta 2009. ekitaldietarako kontu-ikuskaria izendatu da.
- Kontsulta-prozedurari buruz Eusko Jaurlaritzari jakinarazpena bidaltzea onartu da.
- Merkataritza jardueraren 7/1994 Legearen bigarren aldaketaren Lege Aurreproiektuari buruzko irizpena onartu da.
- Euskal Herriko Portuei buruzko Lege Aurreproiektuari buruz lan-batzordean irizpen-proiektua izan ostean egindako bozketaren norainokoaren eztabaida eta, hala badagokio, erabakia hartzeko proposamena Batzorde Iraunkorrari bidaltzea erabaki da.
- Euskadiko sozietate kooperatibo txikiaren Lege Aurreproiektuari buruzko irizpen-proiektua gai-zerrendatik kendu da, lan-batzordean ez baita onartu.
- STAren jarraipen-proposamena eta antolaketa-gutuna aldatzea onartu da.



# 3.2. 2007an euskadiko ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordearen batzorde iraunkorrak egindako saioak

## 2007ko otsailaren 20a

- Batzorde Iraunkorrak 2006ko abenduaren 5ean egindako bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- Hausnarketa estrategikoa: aurreko bileran Plan Estrategikoa egitearen proposamena gaitzetsi ostean, hurrengo Bilkura Oso baten hausnarketa-gaien proposamen-eskaera errepikatzea adostu da.
- Hainbat gai fiskali buruz berri eman da.
- Martxoaren 7rako Bilkura Osorako deialdia egin da.
- Industria- eta deslokalizazio-politikari buruz eztabaida prestatzeko lehendakariak berri ematea.

## 2007ko apirilaren 25a

- Batzorde Iraunkorrak 2007ko otsailaren 20an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- Akitaniako EEGABrekin alde bien arteko lankidetzari dagokionez, lanak jarraitzeko oinarri bezala Bordelen otsailaren 9an alde biek egindako bileran adostutako jarduera-proposamena onartu da. Lan taldeari konfiantzazko botoa eman zaio lanen garapenean Abiadura Handiko Trenaren gaiak sor ditzakeen zailtasunak salbatzeko.
- ELA eta LABk EGABren eztabaiden esparruan Abiadura Handiko Trenari buruz eztabaida egiteko oinarriak jakinaraziko dituztela iragarri dute.



*Batzorde Iraunkorrareko kide batzuk.*

- → Maiatzaren 23rako Bilkura Osoaren deialdia egin da.
- → Javier Sanzek onartutako irizpenen jarraipen-txostena egitea eskatu du.

## 2007ko ekainaren 15a

- → Batzorde Iraunkorrak 2007ko apirilaren 25ean egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- → 2006ko aurrekontuaren kitapena eta auditoria-txostena onartu da.
- → 2007ko lehenengo hiruhilekoan egindakoaren berri eman da.
- → 2006ko Jarduera Txostenaren proiektua onartu da.
- → 2006. urtean egindako irizpenen jarraipenari buruzko txostena aurkeztu da.
- → Ekainaren 21erako Bilkura Osoaren deialdia egin da.
- → EGABren egoitza berria erosteko beharrezko kudeaketak egin ditzan, Idazkari Nagusiari baimena ematen zaio, erostea interesatzen den lokal zehatza bileran erabaki ostean.

## 2007ko urriaren 4a

- → Batzorde Iraunkorrak 2007ko ekainaren 15ean egindako bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- → Erakundeen arteko Enplegu Planaren izapideei buruz Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuari jakinarazpena bidaltzeko proposamena Bilkura Osoak erabakitzea onartu da.
- → Egiteke dauden irizpenen egoerari buruz jakinarazi da.
- → Lokal berriak erosteko prozesuari buruz Idazkari Nagusiak honakoa jakinarazi du: EGABri esleitzeko hautatutako higiezina Gobernuak berak erosiko duela.
- → Akitaniako EEGABrekin arratsaldean eta hurrengo egunean Gasteizen egingo den bileraren berri eman da.
- → Urriaren 9rako aurrez ikusia dagoen STAren Orientabide Batzordearen bileraren berri eman da.
- → Urriaren 11rako Bilkura Osoaren deialdia egitea erabaki da.
- → Maje Saezek eskatutako borondatezko lan-utzialdiaren berri eman da.
- → Galderak eta eskeak.

## 2007ko azaroaren 16a

- → Batzorde Iraunkorrak 2007ko urriaren 4an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- → Xedapen orokorrak egiteko prozesuan EGABri kontsulta egitea dagokion uneari buruz jakinarazpena Eusko Jaurlaritzari bidaltzeko proposamena Bilkura Osoak onartzea erabaki da.
- → Garapen Ekonomikoaren Batzordeak planteatutako irizpen-igorpenaren prozedurari buruzko gaiak eztabaidatu dira. Gaia Batzordera itzultzea erabaki da.

- Bilkura Osoak erabakitzeko 2008. urterako aurrekontu-proiektua onartu da.
- Auditorea izendatzea: proposamen zehatza Bilkura Osoan hartuko da Idazkari Nagusiak lortu behar duen informazio zehatzaren arabera.
- Abenduaren 14rako Bilkura Osoaren deialdia egin da.
- STAren Orientabide Batzordeak AZTIn urriaren 9an eta Akitaniako EEGABrekin urriaren 5ean egindako bileren berri eman da.



*Batzorde Iraunkorraren bilera.*



# 3.3. 2007an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte arazoetarako Batzordean lan-batzordeen jarduera

## Garapen Ekonomikoaren Batzordea

### 2007ko urtarrilaren 24a

→ Garapen iraunkorrari buruz ekimen-ikerketa propioaren behin betiko egitura erabakitzea.

### 2007ko martxoaren 9a

→ Sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen zortzigarren aldaketaren dekretu-proiektuari buruz irizpen-aurreproiektuaren eztabaida: aurkeztutako aurreproiektua abiapuntu bezala ez da bideragarria eta zerbitzu teknikoek bileran aipatutako alderdien arabera proposamen berria egitea erabaki da.

### 2007ko martxoaren 14a

→ Garapen iraunkorrari buruz Ekimen Ikerketa propioa egiteko lanekin jarraitzen da.

### 2007ko martxoaren 21a

→ Sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen zortzigarren aldaketaren dekretu-proiektuari buruz irizpen-aurreproiektu berria aztertu da. Martxoaren 9an bilera egin ostean idatzi da eta zenbait aldaketa egitea erabaki da.

→ Eztabaidak amaitu gabe gelditu direnez, hurrengo bileran jarraitzea erabaki da.

### 2007ko martxoaren 27a

→ Merkataritza-jardueraren 7/1994 Legearen 2. aldaketari buruzko Legearen aurreproiektua oraingoz EGABk ez duela landuko jakinarazi da, entzute-izapidean baitago.

→ Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen zortzigarren aldaketaren proiektuaren zirriborro berria bidali duela jakinarazi da. 2 artikulu berri sartu dira. Idazkari Nagusia Zerbitzuen Zuzendari Nagusiarekin harremanetan jarri da eta aldaketa berririk ez dela izango ezagutu du.

- → Irizpen-aurreproiektuaren alderdi orokorrak lantzeko bilera jarraitzea erabaki da. Adostasunera iritsiz gero, bi artikulu berrietarako epe berria emango da.
- → Alderdi orokorren eztabaidari dagokionez, irizpen-proiektua egiteko ezinezkoa da adostasuna lortzea.

## 2007ko maiatzaren 2a

- → Garapen iraunkorraren Ekimen Ikerketa propioaren proiektuarekin lanean jarraitzen da.

## 2007ko maiatzaren 18a

- → *"Kultura ekintzailea eta enpresen sorrera laguntzeko Dekretuaren bigarren Dekretu Proiektuari"* buruzko irizpen-aurreproiektuaren eztabaida hasi da.

  Irizpen-aurreproiektua aztertu ondoren, adostasuna bideragarria izan daitekeela ondorioztatzen da, betiere gogoetek bakarrik bigarren aldaketaren dekretu-proiektuak lantzen dituen aldaketekin zerikusia badute. Arloari buruz Batzordeak aurreko bi irizpenetan egindako aipamen guztiak ezabatuko dira.

  Ondorioz, bileran erabakitako baldintzetan idatzi ondoren, irizpen-aurreproiektuari buruz adostasuna lortu da. Behin betiko onartuko da aurreproiektuaren behin betiko testua posta elektronikoz batzordeko kide guztiei bidaltzen zaienean eta horiek ikus onetsia ematen dutenean. Hala, aurreproiektua maiatzaren 23ko Bilkura Osoan aurkeztu ahal izango da.

## 2007ko uztailaren 11

- → Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planaren zirriborroari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzen hasi da.
- → Bileran onartutako gogoeten ondoren aurreproiektuaren testua aztertzeko bilera berria ezarri da.

## 2007ko uztailaren 18a

- → Garapen iraunkorraren ekimen-ikerketa propioaren lanekin jarraitzea.

## 2007ko uztailaren 26a

- → Garapen iraunkorraren ekimen-ikerketa propioaren lanekin jarraitzea.

## 2007ko irailaren 10a

- → Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Plana jada Gobernu Kontseiluak onartu duenez, Planaren txostena egiteko lanekin aurrera jarraitzeari buruz eztabaidatu da. Gehiengoz lanekin jarraitzea erabaki da.
- → Sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen bederatzigarren aldaketaren dekretuari buruzko irizpen-aurreproiektuaren eztabaida hasi da.

## 2007ko irailaren 21a

- → Sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen bederatzigarren aldaketaren dekretuari buruzko irizpen-proiektuari dagokionez adostasuna dago. Bilkura Osoak lantzeke gelditu da.
- → 2010 Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planari buruzko txosten-proiektuari dagokionez adostasuna lortu da. Bilkura Osoak lantzeke gelditu da.

## 2007ko urriaren 26a

- → Merkataritza-jardueraren legearen bigarren aldaketaren lege-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektuaren eztabaidan irizpenak egiteko prozedurari buruzko gaiak atera dira eta Lan Batzordearen eremua gainditzen dute, beraz, Batzorde Iraunkorrak lantzea erabaki da. Ondorioz, irizpen-aurreproiektuari buruzko lanak Batzorde Iraunkorraren erabakien zain gelditzen dira.

## 2007ko azaroaren 6a

- → Euskal Herriko Portuen Lege Aurreproiektuaren irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida hasi da.

## 2007ko azaroaren 13a

- → Euskal Herriko Portuen Lege Aurreproiektuaren irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaidarekin jarraitu da. Aurreko aurreproiektuarekiko planteatutako aldaketak berraztertu dira. Bileran sortutako testua bidaltzea erabaki da hartutako erabakiekin bat datorrela egiaztatzeko.

## 2007ko azaroaren 28a

- → Merkataritza-jardueren legearen bigarren aldaketaren Lege Proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektuari dagozkion lanekin aurrera jarraitzea.
- → Batzorde Iraunkorrak azaroaren 16an egindako bileran planteatutako gai metodologikoak lan-batzordeari itzultzea erabaki zuenez, eztabaidari ekiteko gai horiek hartu dira. Landu ostean, irizpen-aurreproiektua eztabaidatzeari ekin zaio eta bileran adostutako baldintzetan onartu da.

### 2007ko abenduaren 11

- Garapen iraunkorraren ekimen-ikerketa propioaren lanekin jarraitzea.
- Sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen dekretuaren hamargarren aldaketaren Dekretu Proiektuari buruz irizpena egiteko bideragarritasuna erabakitzea.

### 2007ko abenduaren 21a

- Erabakitzeke zeuden aldeei buruz adostasuna lortu ostean, Garapen Iraunkorraren ekimen-ikerketa propioa oso-osorik onartu da. Bilkura Osoak lantzeke gelditu da.

## Gizarte-garapenaren batzordea

### 2007ko urtarrilaren 17a

- Lan-bizia eta familia-bizia bateratzeko neurriak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruz irizpen-aurreproiektuaren eztabaida hasi da.

### 2007ko urtarrilaren 26a

- Lan-bizia eta familia-bizia bateratzeko neurriak arautzen dituen Dekretu Proiektuaren irizpen-aurreproiektuari buruzko lanekin jarraitzea. Beharrezko eztabaidak egin ondoren, irizpen-proiektua onartu da. Hala eta guztiz ere, Bilkura Osoan landu baino lehen, batzordeko kideek epe laburra izango dute azken idazkera bileran adostutakoarekin bat datorrela egiaztatzeko.

### 2007ko otsailaren 9a

- Herri-administrazioen eremuan lan-arriskuen prebentzioan arauak ez betetzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatzea: irizpen-proiektua onartu da eta zerbitzu teknikoek Gogoeta Orokorretan sartu behar dituzten bi paragrafo idatzi ondoren, behin betiko ikus onetsia emango zaio.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lan-osasuna eta segurtasuna ikuskatzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea: irizpen-proiektua onartu da eta ikus onetsia emateke dago zerbitzu teknikoek gogoeta orokorretan sartu behar dituzten paragrafoen idazkera ikusi ostean.
- EAEko kooperatibetan lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-hausteengatik zigorrak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea: irizpena egoteko ez da adostasunik izan.
- Euskadiko mehatzeetan, harrobietan eta tuneletan lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-hausteengatik zigorrak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko irizpena egitearen bideragarritasuna eztabaidatu da. Irizpena ez egitea erabaki da.

## 2007ko otsailaren 23a

→ Herri Administrazioen eremuan lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-hausteengatik zigorrak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea: irizpen-proiektua onartu da bileran adostutako aldaketekin.

→ Euskal Autonomia Erkidegoan lan-osasuna eta segurtasuna ikuskatzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzen hasi da.

## 2007ko otsailaren 27a

→ Euskal Autonomia Erkidegoan lan-osasuna eta segurtasuna ikuskatzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzen jarraitu da: irizpen-proiektua egiteko aukerarik ez dagoela ondorioztatu da.

→ Herri Administrazioen eremuan lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-hausteengatik zigorrak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzko irizpen-proiektuko akatsak zuzendu dira. Batzordeak otsailaren 23an egindako bileran onartu zuen.

## 2007ko martxoaren 23a

→ Gizarte-baztertzearen kontrako legearen bosgarren aldaketaren lege-aurreproiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea: aurkeztutako aurreproiektuaren gainean zenbait aldaketa erabaki ostean, irizpen-aurreproiektuaren testu berria jasotzeke dago. Orduan, baldintza horietan onar daitezkeen balioztatuko da. Bestela, lanekin jarraitzeko bilera berriaren deialdia egin beharko da.

## 2007ko apirilaren 18a

→ Gizarte-baztertzearen kontrako legearen bosgarren aldaketaren lege-aurreproiektuari buruzko irizpen-aurreproiektuaren bigarren zirriborroa aztertu da. Zirriborroa aztertu eta eztabaidatu ostean, batzordeak irizpen-proiektua onartu du.

## 2007ko ekainaren 8a

→ Prebentzio-sistemaren ikuskaritza-jarduera garatzeko besteen eta pertsonen edo erakunde espezializatuen prebentzio-zerbitzuaren erregistroa sortu eta arautzeari buruzko Dekretu Proiektuaren Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida hasi da: aurreproiektu berria idaztea erabaki da bileran erabakitako gogoetetan oinarrituta. Testu berriaren oharrak ahal diren neurrian bilera berria egiteko beharrik izan gabe landuko dira.

## 2007ko uztailaren 20a

→ 2007-09 Gizartean Sartzeko Erakundeen arteko II. Planari buruzko irizpena egiteko lanekin ez jarraitzea eta Lan Batzordearen erabaki hori berrestea: erabakia berretsi da.

### 2007ko abenduaren 3a

→ Euskadiko Sozietate Kooperatibo Txikiaren buruzko Lege Aurreproiektuaren irizpen-aurreproiektua eztabaidatzen hastea: irizpena egiteko adostasunik ez dagoela ondorioztatu da.

## Txosten Sozioekonomikoaren Batzordea

### 2007ko otsailaren 7a

→ Txosten sozio-ekonomikoaren hurrengo edizioko edukia eta egitura, baita lan-egutegia ere onartu da.

### 2007ko maiatzaren 3a

→ 2006ko Txosten Sozioekonomikoaren lanei ekin zaie.
→ Lan-egutegian aldaketa batzuk adostu dira.
→ Kideek egindako ekarpenak aztertu dira.

### 2007ko uztailaren 4a

→ Batzordearen lanekin jarraitu da: landutako kapitulu desberdinei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartu dira.
→ Hobekuntza-aldaketak eta iradokizunak sartzen ari direla jakinarazi da, hain zuzen ere, Batzordeko kideek zerbitzu teknikoei adierazi dizkietenak. Batzordean bakarrik adostu beharrekoak landuko dira.

### 2007ko irailaren 7a

→ Lanekin jarraitzea: egokitzat jotzen diren txostenaren kapituluak ixten hastea erabaki da. Laburpena aztertzeari ekingo zaio.

### 2007ko irailaren 19a

→ Lanekin jarraitzea: lehenik eta behin, ixteke zeuden 2006ko TSEren gorputzari buruzko alderdiak landu dira; ondoren, laburpen- eta gogoeta-kapituluarekin jarraitu da.
→ Eztabaida eta erabaki egokien ondoren, Txostena onartu da eta Bilkura Osoak lantzeke utzi da.



# Garraioaren arloan Akitaniarekin lankidetzan jarduteko lan-taldeak egindako saioak (2007)

## Bilbo, 2007ko urtarrilaren 18a

Lan-eremu berrian aplikatu beharreko helburu, egiturari eta edukiei buruz hausnartu zen. Hori Akitaniako EEGABk erabaki zuen eta EAEren eta Akitaniaren artean ondasunak eta pertsonak garraiatzeko da. José Ignacio Olaizola jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zoru eta Garraioko Zuzendari Nagusiak, parte hartu zuen. Garraioaren arloan bi eskualdeen artean ondasunak eta pertsonak zirkulatzeko EAEren eta Akitaniaren artean dauden oztopo praktikoen azalpena egin zuen.

Esku hartu ondoren, honakoak eztabaidatu ziren: batetik, lan-edukiak definitzea eta, bestetik, Akitaniako EEGABren proposamena. Zegozkion erabakiak hartu ziren. Era berean, komunikazio-jarduera bateratuaren programa landu zen. Horiek Akitaniarekin dagoen kooperazio-esparruan egindako txostenean daude.

## Bilbo, 2007ko otsailaren 8a

Otsailaren 9an Bordelen Akitaniako EEGABrekin bilera bateratua hasi baino lehen, Lan Taldea bildu egin zen Akitaniako EEGABrekin batera garraioaren arloan egingo diren lanen edukia zehaztasun handiagoz definitzeko, EAEn garraioaren arazo larrienak zirriborratzeko eta Bordelen Akitaniako EEGABren bilera bateratuaren programa errepasatzeko.



→ *2007ko urtarrilaren 18an egindako bileraren argazkia.*

### Bilbo, 2007ko uztailaren 19a

Jose María Uranga jaunari ongietorria ematea; Lan Taldean sartu zen 3. taldeari ordezkatzen.

Taldeak Lan-taldeak gauzatutako lanei buruz Batzorde Iraunkorraren eztabaida eta erabakiak aztertu zituen eta Bordelen otsailaren 9an Akitaniako EEGABrekin batera egindako jarduera-proposamenarekin bat lanek jarraitzeko erabakiak hartu zituen. Xede horrez, EAEn hurrengo bilera bateratuaren antolaketaz, edukiez eta prestatzeko xedapenez hausnarketa egin da.

### Bilbo, 2007ko irailaren 28a

Akitaniako EEGABErekin bilera bateratua egiteko prestaketa-saioa. Aipatu bilera Gasteizen egingo da urriaren 5ean eta urriaren 4an ARASUR izeneko Plataforma Multimodalera bisita egingo da.

## Bilerak bestelako lan-taldeekin

### Hausnarketarako gaien multzoa

2007. urtean aldi baterako lan-taldea osatu zen. Hainbat batzordeko kidek borondatez izena eman zuen. Taldearen lan-eremua EGABren eta bere funtzionamenduaren gaiei buruz hausnarketa egitea da. Gaiak batzordeko kideek proposatu zituzten eta garrantzitsua da horiek lantzea hobekuntza-proposamenak formulatu ahal izateko. Gaiak oso desberdinak dira eta EGABren alderdi desberdinetan dute eragina.

Taldea talde ireki bezala osatu zen eta nahi zuten batzordeko kide guztiek parte har zezaketen. Azkenik, honako pertsonek osatu zuten:

Oihan Ostolaza (LAB), Carlos Trevilla (UGT), Juan Hernández (UPV/EHU), Javier Sanz (Kooperatibak), Pedro Martínez de Alegría (Aurrezki Kutxak eta Erakunde Finantzarioak), Rafael Puntonet eta Antón Borja adituen taldekoak. Taldea koordinatzen Idazkari Nagusia ari da.

Taldeak 2007. urtean bederatzi bilera egin ditu eta txosten hau idazten ari zenean oraindik ez du bere jarduera amaitutzat jo.

# 2

# Batzordearen legean aurrez ikusitako funtzioak egitea

# 2

# Batzordearen legean aurrez ikusitako funtzioak egitea

Indarrean dagoen legeak aurrez ikusitakoaren arabera, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2007. urtean sei irizpen eta txosten bat egin zuen kontsultatutako gaiei buruz. Era berean, Euskadiko EGABk Gobernuaren eta Euskal Parlamentuaren aurrean jarri zuen Urteko Txostena. Bertan EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko iritziak azaltzen ditu. Halaber, lan-batzordeak ekimen-ikerketa propioa onartu zuen eta Bilkura Osoak onartzeke gelditu zen. Hori 2008. urtearen hasieran gertatu zen. “EGABren eztabaidak” izeneko jarduera-lerroaren esparruan eztabaida bat antolatu zen. Atal honen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bere funtzioak betetzeko egindako lanen sintesia eskaintzen da.

## 1. Batzordeak irizpenak emandako gaiak:

Ekonomia eta Gizarte Batzordeak 2007. urtean sei irizpen eta txosten bat egin zituen:

→ **1/07 Irizpena, Herri-Administrazioen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloan arauak ez betetzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Euskadiko EGABn sarrera-data**: 2007ko urtarrilaren 18a.

**Batzordea**: Gizarte Garapenaren Lan Batzordea.

**Bilerak**: Batzordeak bi bilera egin zituen 2007ko otsailaren 9an eta 23an 10:00etan.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamenetatik eta emandako iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko martxoaren 7an egin zuen eta Irizpena egitea onartu zuen LAB sindikatuaren boto bereziarekin.

### → 2/07 Irizpena, gizarte-baztertzearen kontrako legearen bosgarren aldaketaren aurreproiektuari buruzkoa.

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenaren Batzordea**.**

**Bilerak:** 2007ko martxoaren 23a eta apirilaren 18a.

**Emaitza:** Batzordeko kideek emandako iritzietatik eta egindako proposamenetatik abiatuta Irizpen Aurreproiektua idatzi ondoren, eztabaidatu egiten da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko maiatzaren 23an egin zuen eta aho batez Irizpena egitea onartu zuen.

### → 3/07 Irizpena, kultura ekintzaileari eta enpresen sorrerari laguntzeko Dekretuaren bigarren aldaketaren Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Euskadiko EGABn sartze-data**: 2007ko apirilaren 26a.

**Batzordea**: Garapen Ekonomikoaren Batzordea.

**Bilerak**: Batzordeak bilera bat egin zuen 2007ko maiatzaren 18an 10:00etan.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamenetatik eta emandako iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko maiatzaren 23an egin zuen eta aho batez Irizpena egitea onartu zuen.

### → 4/07 Irizpena, prebentzio-sistemaren ikuskaritza-jarduera garatzeko besteen prebentzio zerbitzuen eta pertsonen edo erakunde espezializatuen zerbitzuen erregistroa sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Idazkaritza Teknikoa**: Arantza López de Munain

**Euskadiko EGABn sarrera-data**: 2007ko maiatzaren 14a.

**Batzordea**: Gizarte Garapenaren Batzordea.

**Bilerak**: Batzordeak bilera 2007ko ekainaren 8an 10:00etan egin zuen.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamenetatik eta emandako iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko ekainaren 21ean egin zuen eta aho batez Irizpena egitea onartu zuen.

### → 5/07 Irizpena, sustapen ekonomikorako laguntza-lerroak xedatzen dituen Dekretuaren bederatzigarren aldaketaren Dekretu Zirriborroari buruzkoa

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Euskadiko EGABn sarrera-data**: 2007ko ekainaren 2a.

**Batzordea**: Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordea.

**Bilerak**: Batzordeak bi bilera egin zituen 2007ko irailaren 10ean eta 21ean 10:00etan.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamenetatik eta emandako iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko urriaren 11n egin zuen eta aho batez Irizpena egitea onartu zuen.

### → 6/07 Irizpena, Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen bigarren aldaketaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Euskadiko EGABn sarrera-data**: 2007ko ekainaren 22a.

**Batzordea**: Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordea.

**Bilerak**: Batzordeak bi bilera egin zituen 2007ko urriaren 26an eta azaroaren 28an 10:00etan.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamenetatik eta emandako iritzietatik abiatuta idatzitako Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik Irizpen Proiektua egin da EGABren Bilkura Osoak lantzeko. EGABk Bilkura Osoa 2007ko abenduaren 14an egin zuen eta aho batez Irizpena egitea onartu zuen.

### → 1/07 Txostena, 2010 Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planari buruzkoa

2010 Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planaren zirriborroak Euskadiko EGABn ohiko sarrera apirilaren 26an izan arren eta nahiz eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Irizpena eskatu, Plana EGABren Garapen Ekonomikorako Batzordeak lanak amaitu aurretik onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Horren ondorioz, Batzordearen irizpena azkenean Planaren behin betiko testuari buruzko Ekimen Ikerketa Propioa izan zen.

**Idazkaritza Teknikoa:** Leire Ozerin

**Batzordea:** Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordea

**Bilerak:** Batzordeak hiru bilera egin zituen 2007ko ekainaren 11n eta irailaren 7an eta 21ean 10:00etan.

**Onarpena:**

Euskadiko EGABren Garapen Ekonomikoaren Batzordeak 2007ko irailaren 21ean onartu zuen.

EGABk Bilkura Osoa 2007ko urriaren 11n egin zuen eta gehiengoz onartu zen.

# 2. Txosten sozioekonomikoa

2006. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako Egoera Ekonomiko eta Sozialari buruzko Txostena Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Bilkura Osoak aho batez onartu zuen 2007ko urriaren 11n egindako saioan. Hala, erakundeak derrigorrez bete behar duen lege-agindua (Gobernuari eta Euskal Parlamentuari urtero EAEn egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko iritziak azalduz txostena egin eta pasatzea) bete zen.

Lan-batzordea honako kideek osatu zuten: Mikel Noval jaunak (ELA), Raúl Arza jaunak (UGT), Antxon Tomasena jaunak (CCOO), Rafael Izquierdo jaunak (LAB), Eduardo Aréchaga jaunak (CONFEBASK), Jaime Fernández Alcedo jaunak (CONFEBASK), Rafael Aranguren jaunak (Aurrezki Kutxak eta Erakunde Finantzarioak), Miren Garmendia andreak (Arrantza Erakundeak), Mikel de la Fuente jaunak (UPV-EHU), Fco. Javier Sanz jaunak (Kooperatibak), Felicísimo Ayastuy jaunak, Antón Borja jaunak, Iñaki Barrenetxea jaunak eta Mª Luz de la Cal andreak (EGABko adituen taldeko kide bezala) eta Leire Ozerin andreak Idazkari Tekniko bezala. Dokumentazio Teknikoa Euskadiko EGABko Ikerketa eta Proiektu Arduradunek, Leire Ozerin andreak eta Arantza Unzurrunzaga andreak, egin zuten eta Batzordeko erakundeen, elkarteen eta adituen ekarpenak gehitu zituzten.

2006ko Txostena egiteko, Batzordeak bost lan-bilera egin zituen 2007ko otsailaren 7an, maiatzaren 30ean, uztailaren 4an eta irailaren 9an eta 19an; azkeneko datan aho batez onartu zen “2006ko EAEko Txosten Sozioekonomikoa”.

Gura Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomiko eta sozialari buruz Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero egiten duen Txostenak hamargarren edizioa izan du. Ekonomia- eta gizarte-errealitatearen datu garrantzitsuenak aztertzen ditu eta Euskadiko EGAB osatzen duten ekonomia- eta gizarte-eragileek partekatutako diagnostikoa eskaintzen du.

2006an Ekonomia eta Gizarte Egoerari buruzko Txostenak aurreko edizioetako edukien lerro orokorrak mantendu ditu. Dena delakoa, Jarduera Judizialaren Eboluzioari buruzko kapitulu berria sartu du.

“Laburpen eta Gogoeta Orokorrak” izeneko lehenengo atalaz gain, Txostenaren edukiak hurrengo multzo handietan egituratzen dira:

→ II. KAPITULUA) EAEN JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BITARTEKOAK

1. EAEn giza baliabideak:
   – Demografia eta inmigrazioa
   – Hezkuntza eta hezkuntza-sustapena
2. EAEn produkzio- eta berriztapen-egitura:
   – Produkzio-egitura
   – I+G+Bren jarduerak eta IKT izenekoak
3. Natur ingurunea
4. Azpiegiturak

→ III. KAPITULUA. EAEN EKONOMIA

1. Kanpoko ingurune ekonomikoa
2. EAEko abagune ekonomikoa
3. EAEko sektore publikoa
4. Gizarte-ekonomia
5. Lan-merkatua EAEn
6. Prezioak, kostuak eta produktibitatea

→ IV. KAPITULUA) BIZI-KALITATEA EAEN

1. Talde ahul zehatzen bizi-baldintzak (haurtzaroa gizarte-zailtasunekin eta mendeko pertsonak)
2. Osasuna eta osasun-sistema
3. Hirigintza eta etxebizitza
4. Kultura, astialdia, kirola eta kontsumoa
5. Pobrezia eta gizarte-baztertzea
6. Jarduera judizialaren eboluzioa

→ V. KAPITULUA) BABESA ETA GIZARTE-BAZTERTZEA EAEN

1. Langabeziarekiko babesa
2. Gizarte-segurantzaren prestazioak
3. Pobreziaren eta gizarte-baztertzearen kontrako neurriak
4. Gizarte-aurreikuspenerako sistema osagarriak

→ VI) GARAPENERAKO KOOPERAZIOA EAEN

→ VII) 2006AN JARDUERA LEGEGILEA EAEN



→ *2007ko urriaren 17an: Aurkezpena prentsari.*

# 3. Norberaren ekimenez ikerketak egitea

2007. urtean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak norberaren ekimenez txostenak eginda lanean jarraitu zuen. Lan-lerro berri horri 2003. urtean ekin zitzaion eta horri esker hautatutako arloetan sakondu ahal izan da. Bestalde, hautatutako arloak aparteko garrantzia dute gure herrialdeko ekonomia- eta gizarte-garapenerako. Ikerketa konplexuak dira eta horien bitartez iritziaren sortzaile bezala EGABk bere zeregina garatzen du. Aipatu funtzioa 97/1997 Legeak, ekainaren 27koak, Euskadiko EGABri buruzkoak 3.d) artikuluan jasotzen du.

2007. urtean hurrengo ikerketak egiteko lanekin jarraitu zen:

**Garapen iraunkorra, herri-politiken erronka: EAEN garapen iraunkorraren estrategia egiteko eta horretan ikuspuntu ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena sartzeko jarraibideak definitzea. Ikerketa alderatua.**

*Oharra:* aipatu ikerketa Garapen Ekonomikoaren Lan Batzordeak 2007ko abenduaren 21ean onartu zuen eta Bilkura Osoak lantzeke gelditu zen. Hori 2008ko otsailaren 1ean egin zen eta orduan behin betiko onartu zen ikerketa.

**Arduradun teknikoa:** Arantza Lopez de Munain Zulueta

**Helburua:** lanak ahalik eta ikuspegi zehatzena lortu nahi du gure herri-politikek ingurunean aurrera egindako norabideari buruz. Iraunkortasun ekonomikoa eta soziala bilatzeaz gain, ingurumen-iraunkortasuna bilatzen dute, bai Europako Elkartearen nazioz gaindi, bai nazioan eta eskualdean. Azkeneko horietan “praktika onak” alderatu dira. Azterketa horietatik abiatuta, ondorio egokiak atera daitezke EAEn ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapenaren estrategia iraunkorra bultzatzeko. Ikerketak sakonki aztertzen du Europako Elkarteko Garapen Iraunkorraren Estrategia, elementu eta aplikazio guztietan. Halaber, Garapen Iraunkorraren Estrategia desberdinak lantzen ditu. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-aldagaiak integratuz, gure ingurune sozioekonomikoaren herrialdeetan eta eskualdeetan diseinatu eta abian jarri dira eta gure Autonomia Erkidegoan garatutako ekimenak ebaluatzeko erabili dira. Ikerketaren oinarrizko eduki- eta analisiaren helburu nagusia Euskadiko EGABn bildutako ekonomia- eta gizarte-eragileen proposamena definitzea izan da; helburuak modu integratuan planifikatzeko irizpideak bildu dira eta EAEn etorkizunean Garapen Iraunkorraren Estrategia egiteko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-konpromisoak hartu dira.

**Edukia:**

→ Etorkizunean EAEn Garapen Iraunkorraren Estrategia egiteko jarraibideak definitzea eta gomendatzea eta horren barruan ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ikuspuntuak kontuan hartzea.

→ Euskadiko EGABren laguntza-dokumentazioa:
  – Garapen Iraunkorra: kontzeptuaren sorrera eta eboluzioa.
  – Garapen Iraunkorraren Europako Estrategia: oinarrien, prozeduren eta tresnen analisi zehatza eta garapen programatikoak eta sektorialak.
  – Gure ingurune sozioekonomikoaren herrialdeetan eta eskualdeetan diseinatu eta abian jarritako Garapen Iraunkorraren Estrategiak analizatzea. Zehatz-mehatz honako esperientziak aztertu dira: Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Holanda, Nord-Rhein Westfallen, Valonia, Katalunia eta Eskozia.
  – Aldez aurretiko analisi-testuinguru alderatuan EAEko Garapen Iraunkorraren Estrategia ebaluatzea, arreta berezia jarriz ingurumen-aldagaia integratzeari.

**Aholkularitza laguntzaileak:** LKS Consulting eta Wuppertal Institute for Climate, Environment and Energy

Ikerketa egin den bitartean, lanei buruz hausnarketa egin eta balioztatzeko bilerak egin dira eta bertan EGABko erakundeetako ordezkariak izan dira, Batzorde Iraunkorrak izendatu ostean. Garapen Ekonomikoaren Batzordean aztertu eta eztabaidatu zen eta sei bilera egin ziren lantzeko.

2007ko abenduaren 21ean egindako bileran Batzordeak oso-osorik onartu zuen ikerketa eta, beraz, lanak amaitutzat jo ziren. Dokumentua behin betiko onartzeko Batzordeko Bilkura Osoak lantzeke gelditu zen. Arestian aipatu den bezala, ikerketa onartzeko Bilkura Osoa 2008ko otsailaren 1ean bildu zen.

## 4. EEGABren Eztabaidak

2006an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak lan-lerro berriari ekin zion jardunaldi bereziak sustatu eta antolatuz. Helburua honakoa zen: hausnarketak, iritziak eta analisiak azaltzea eta interes orokorreko eztabaidak sustatzea.

Helburu horrekin produktu korporatibo berria garatu zen: "Los debates del CES- EEGABren Eztabaidak". Lanaren, ekonomiaren eta gizartearen arloan gai interesgarriekin eta eguneratuekin jardunaldiak eta mintegiak antolatu ziren.

2007. urtean **"Industria-politika eta deslokalizazioa Euskal Herrian"** izeneko eztabaida izan zen 2007ko irailaren 26an Bilboko Euskalduna jauregian.

Eztabaida batera koordinatu zuten Oihan Ostolazak (LAB) eta Mikel de la Fuentek nahiz Juan Hernándezek (UPV/EHU). Horiek guztiak EGABren kideak dira eta eztabaida proposatu zuten. Antolaketan lankidetzan jarduteko kide aditua Antón Borja izan zen.
Aurreko eztabaidetan bezala, lan-talde boluntarioa sortu zen ekitaldi integratua antolatzeko. Aipatu kideez gain, honakoak izan ziren: Virginia Múgica eta Eduardo Arechaga CONFEBASKekoak. Taldearen koordinazio lanetan Idazkari Nagusiak, Javier Muñecasek, jardun zuen.

Euskadiko EGABk antolatuta, jendeari irekitako hirugarren eztabaida izan zen. Tokiko eta nazioarteko adituek parte hartu zuten eta Europako erakundeetatik, sindikatuetatik, gizarte-erakundeetatik eta erakundea akademikotik etorri ziren. Ondoren azaltzen den eztabaida-programan hori guztia agertzen da.




→ *Politika Industriala eta Deslokalizazioa Euskal Herrian.*



debates aces
eztabaidak

**Politika Industriala eta Deslokalizazioa Euskal Herrian**

**Política Industrial y Deslocalización en Euskal Herria**

**26** septiembre
hora: 09:00 h.
lugar: Bilbao,
Palacio Euskalduna - Sala E
organiza: CES Vasco

PROGRAMA

**Apertura de Jornada**
**D. Antxon Lafont**
*Presidente del CES*

**Presente y Futuro de la Política Industrial**
Modera:
**D. Antón Borja**
*Consejero Grupo D, CES Vasco*
Ponentes:
**D. Didier Herbert**
*Dirección General de Empresa y Política Industrial, Comisión Europea*
**D. Benjamin Coriat**
*Université Paris XIII*

**Rueda de Prensa - Pausa café**

**Los Retos de la Deslocalización en Europa**
Modera:
**D. Mikel De La Fuente**
*Consejero Grupo C, CES Vasco*
Ponentes:
**D. Juan E. Iranzo**
*Instituto de Estudios Económicos, Madrid*
**D. Michel Husson**
*Institut de Recherches Economiques et Sociales, Paris*

**Fin de la sesión matinal**

**Mesa Redonda: La Política Industrial y la Deslocalización en Euskalherria**
Modera:
*Consejero Grupo B, CES Vasco*
Participan:
**D. Jesús Maria Herrasti**
*Mondragón Corporación Cooperativa*
**Dña. Maria Carmen Gallastegi**
*Universidad del País Vasco*
**D. Antón Mendizabal**
*Universidad del País Vasco*
**D. Peio Olhagaray**
*Chambre de Commerce et Industrie de Bayonne, Pays Basque*
**D. Iñaki Telletxea**
*Departamento de Industria, Comercio y Turismo, Gobierno Vasco*

**Clausura**

**26** iraila
ordua: 09:00etan
tokia: Bilbo,
Euskalduna Jauregia - E Aretoa
antolatzailea: EEGAB

EGITARAUA

**Jardunaldiaren irekiera**
**D. Antxon Lafont**
*EEGABeko Lehendakaria*

**Politika industrialaren oraina eta etorkizuna**
Moderatzailea:
**D. Antón Borja**
*D taldeko kontseilaria, EEGAB*
Txostengileak:
**Didier Herbert** jauna
*Enpresa eta Politika Industrialeko Zuzendaritza Nagusia, Europar Batasuna*
**Benjamin Coriat** jauna
*Université Paris XIII*

**Prentsaurrekoa - Atsedenaldia eta kafea**

**Deslokalizazioaren erronkak Europan**
Moderatzailea:
**Mikel De La Fuente** jauna
*C taldeko kontseilaria, EEGAB*
Txostengileak:
**Juan E. Iranzo** jauna
*Instituto de Estudios Económicos, Madril*
**Michel Husson** jauna
*Institut de Recherches Economiques et Sociales, Paris*

**Goizeko saioaren amaiera**

**Mahaingurua: Politika industriala eta deslokalizazioa Euskal Herrian**
Moderatzailea:
*B taldeko kontseilaria, EEGAB*
Parte hartuko dute:
**Jesús Maria Herrasti** jauna
*Mondragón Corporación Cooperativa*
**María Carmen Gallastegi** andrea
*Euskal Herriko Unibertsitatea*
**Antón Mendizabal** jauna
*Euskal Herriko Unibertsitatea*
**Peio Olhagaray** jauna
*Chambre de Commerce et Industrie de Bayonne, Pays Basque*
**Iñaki Telletxea** jauna
*Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila*

**Amaiera**

organiza

CES

inscripciones
Tel: 944 792 150
Fax: 944 169 505
cesvasco@cesvasco.es
www.cesvasco.es

→ *Politika Industriala eta Deslokalizazioa Euskal Herrian izeneko Eztabaidaren egitaraua.*






de la concurrence


Política Industrial


El Auge del Eje del Pacífico

# Erakunde-jarduera

3

# 3

# Erakunde-jarduera

Batzordeko ordezkariak ekitaldi, kongresu, mintegi eta mahainguru askotan izan dira, EAEko erakunde, enpresa, komunikabide eta elkarte desberdinek gonbita luzatu ostean.

Era berean, urtean zehar EGABko teknikariek jardunaldi, mintegi, ikastaro edo eztabaida-gune desberdinetan parte hartu zuten. Horiek erakundean jarduera garatzeko interesgarriak ziren.

Beste erakunde homologoekin eskualdeen arteko kooperazioa eta autonomia-eremuko nahiz Europako bestelako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin topaketak biziagotu egin ziren 2007. urtean. Euskadiko EGABk bisitak jaso eta erakunde-topaketak izan zituen. Horiek gure Erkidegotik nahiz kanpotik etorri ziren.

Bakarrik nabarmenenak azpimarratuko ditugu:

## Erakunde topaketak eta agerraldiak

### → 07/01/11, Gasteiz:

Bilera Idazkari Nagusiaren eta administrazio- eta zerbitzu-arduradunaren eta Edurne Egaña Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuen Zuzendariaren artean 2007. urterako Batzordearen aurrekontua aurkezteko.

### → 07/02/8, Brusela:

Antxon Lafont lehendakariaren bisita Europako EGABra.

### → 07/02/13, Madril:

Antxon Lafont lehendakaria Sare Transnazional Atlantikoko (STA) kideen erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen bilerara joan zen. Erreinuaren EGABren egoitzan egin zen eta STAren egoera eta etorkizuneko planteamenduak landu ziren.

### → 07/02/21, Santander:

Antxon Lafont lehendakaria STAko kideen erkidegoetako batzordeen lehendakarien eta sareko Frantziako Batzordeetako kideen bilerara joan zen.

### → 07/03/2, Bilbo:

Kataluniako *Consell de Treball Economic y Social* erakundeko lehendakariaren, Mercé Sala andrearen, bisita EGABri. Antxon Lafont lehendakariarekin bilduta izan zen.

### → 07/03/8, Bilbo:

Antxon Lafont EGABko lehendakaria eta Akitanikoa EEGABrena, Javier Muñecas Idazkari Nagusiarekin eta Batzordeko langile teknikoekin batera, Ana Aguirre Industria eta Turismo Sailburuarekin eta Koro Garmendia Turismo Sailburuordearekin bildu ziren bi Batzordeen artean lankidetza-esparruan egindako ikerketa aurkezteko: *"Hurbiltasuneko turismoa Akitaniako Eskualdearen eta EAEren artean eta egonaldietako turismoa bestelako merkatuetarako: garapen-aukerak eta -baldintzak".*



→ *Bilera Ana Aguirre eta Koro Garmendia.*

### → 07/03/14-15 eta 16, Mérida:

Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako Lehendakarien eta Idazkari Nagusien eta Estatuko EGABko Lehendakariaren eta Idazkari Nagusiaren arteko urteko topaketa. Javier Muñecas idazkari nagusia Euskadiko EGABren izenean joan zen. Topaketan erkidegoetako EGABak, Batzorde bakoitzaren jarduerak azaldu eta interes orokorreko gaiak bateratzeaz gain, Extremadurako Parlamentua bisitatzeko aukera izan zuten eta Extremadurako Batzarreko Lehendakariak, Juan Carlos Rodríguez Ibarra jaunak, harrera eskaini zien.



→ *Autonomia-erkidegoetako Ekonomia eta gizarte arazoetarako kontseiluen bilera Meridan.*

## → 07/03/20 eta 21, Bordele:

Euskadiko EGABren ordezkaritzaren buru Antxon Lafont lehendakaria izan zen eta Akitaniako EEGABEko Lehendakariarekin eta beste kide batzuekin batera Alain Rousset Akitaniako Eskualdeko Batzordearen Lehendakariari turismoari buruzko ikerketa aurkeztu zion. Hori EGAB eta EEGABren arteko lankidetza-esparruan egin da. Era berean, bi Batzordeen ekitaldi bateratua egin zen aipatu ikerketa jendaurrean aurkezteko. Bertan Akitaniako eskualdeko erakundeen, ekonomiaren eta gizartearen eragileak zeuden.



→ *Antxon Lafont eta Jean François Gargou Turismoari buruzko lan ematen Akitaniako Erregioko lehendakaria den Alain Rousset-i.*

### → 07/03/22, París

ELGAko Juan Luis Nietorekin Antxon Lafont lehendakariaren bilera.

### → 07/06/1, Bilbo

Antxon Lafont lehendakaria eta Javier Muñecas idazkari nagusia ASLEren fundazioaren 25. urteurrena oroitzeko erakunde-ekitaldira joan ziren. Euskalduna jauregian egin zen.

### → 07/06/6, Donostia

Antxon Lafont lehendakaria ADEGIren Batzar Nagusian izan zen.

### → 07/07/3, Donostia

Lehendakaria EHUren udako XXVI. Ikastaroen inaugurazioan izan zen.

### → 07/07/07, Santander

Idazkari Nagusia Menéndez Pelayo unibertsitateko (UIMP) udako ikastaroan izan zen. Erreinuko EGABk antolatu zuen “Espainiako egoera ekonomia eta lanekoa. Aukera-berdintasuna eta aniztasunaren kudeaketa” izenburupean.

### → 07/09/06, Donostia

Lehendakaria Miramar jauregian Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioak antolatutako ikastaroa ixten izan zen honako titulupean “Garapen iraunkorra eta aldaketa klimatikoa: ekonomia eta gizartea”. EHUko udaleko ikastaroen esparruan antolatu zen.

### → 07/10/1, Leioa

Idazkari Nagusia EHUko 2007-08 ikasturtea irekitzen zuen erakunde-ekitaldian izan zen.

### → 07/10/18, Arrasate

Idazkari Nagusia Mondragón Unibertsitateko 2007-08 ikasturtea irekitzen zuen erakunde-ekitaldian izan zen.

### → 07/10/23, Bilbo

Idazkari Nagusia Zorpetzeari buruzko III. Europako Jardunaldietan izan zen. Horiek Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteak (EKE) antolatu zituen.

### → 07/11/5, Gasteiz

Idazkari Nagusia, ikerketa eta proiektuen arduradunarekin, Arantza Urzurrunzagarekin batera, Euskal Parlamentuko Lan eta Gizarte Gaietako Batzordearen aurrean agertu zen bere ekimeneko ikerketaren ondorio nagusiak azaltzeko: "Gizarte Babesa EEko eta EAEko Gizarte-politikaren oinarrizko elementu bezala".

### → 07/11/19 eta 20

Lehendakaria Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusian izan zen.



# Kanpoko Kooperazioa Ekonomia eta Gizarte arazoetarako batzordeekin eta Espazio Atlantikoko bestelako erakundeekin

## Bi aldeen arteko kooperazioa Akitaniako EEGAB-rekin

Euskadiko EGABk bi aldeen arteko kooperazio-harremana mantentzen du *Conseil Economique et Social Régional d'Aquitaine* izenekoarekin; horri esker elkarrizketa etengabea da eta EAEn eta Akitanian interes komuna duten gaiei buruzko ikuspuntu partekatua garatzen da. 2004. urtean lehenengo lan-batzordea sortu zen eta Euskadiko EGABren ordezkariek eta EEGABren Eskualdeen arteko Kooperazio Taldeko ordezkariek osatu zuten. Akitaniaren eta EAEren artean hurbiltasun-turismoa bultzatzeko aukerak aztertu zituzten, betiere iraunkortasunaren irizpideak errespetatzen bazituzten, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eskakizunak integratzen bazituzten. Halaber, EAEren eta Akitaniaren artean eskaintza turistiko komuna zehaztu zen beste merkatuei begira.

Ikerketa bateratua 2007. urtean aurkeztu zitzaien bi eskualdeetako agintariei eta erakunde-eragileei, eragile sozioekonomikoei eta prentsari. Ildo horri jarraiki, martxoaren 8an Bilbon Euskadiko EGABko lehendakaria, Antxon Lafont, eta Akitaniako EEGABko Lehendakaria, Jean-François Gargou, Ana Aguirre Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuarekin eta Koro Garmendia Turismo Sailburuordearekin bildu ziren eta martxoaren 20a Bordelen Euskadiko EGABren ordezkaritza eta Akitaniako EEGABren ordezkaritza, Lafont eta Gargou buru zirela, Alain Rousset Akitaniako Eskualde Kontseiluaren lehendakariarekin elkarrizketatu ziren. Bi ekitaldietan dokumentua entregatu eta aurkeztu zen eta ondorioak azaldu ziren.

Bi Batzordeetako ordezkariak berriz bildu ziren Bilbon eta Bordelen martxoaren 13an eta 21ean, hurrenez hurren, ekitaldi publikoetan ikerketa EAEko eta Akitaniako erakunde-eragileei, eragile ekonomikoei eta sozialei eta prentsari aurkezteko. Bi lehendakariak, Antxon Lafont eta Jean-François Gargou buru izan ziren.

Turismoaren arloan lan bateratuak amaitu ondoren, bi Batzordeek 2007. urtean jarduera berriei ekin diete batera bi aldeen arteko kooperazioaren harremanaren eremuan. EAEren eta Akitaniaren artean garraioaren arloan gure bi eskualdeen artean ondasunak eta pertsonak zirkulatzeko oztopoak aztertzeari ekin zioten, irtenbide- eta hobekuntza-proposamenak formulatzeko xedez. Egungo eta etorkizuneko garraio-fluxuak aztertuko ditu, baita moduak ere, bi eskualdeen arteko garraio-eskaintza, eskualdeen, estatuaren eta EEn garraio-politikak, arazoak identifikatuko dira lineei, zerbitzuei, azpiegiturei, elkarren arteko operatibotasunari eta intermodalitateari dagokionez eta identifikatutako problematiketatik abiatuta, ebazpen-proposamenak definituko dira.

Lanez arduratzen den Euskadiko EGABren Lan Taldeak izandako barneko bilerez gain, 2007. urtean lan-batzorde bateratuaren bi bilera izan dira Euskadiko EGABren eta Akitaniako EEGABren ordezkarien artean:

### → Bordele, 2007ko otsailaren 9a

Bileran lehenengo hurbilketa egin zen EAEn eta Akitanian dauden garraio-fluxuetara eta, horretarako, *Direction Régionale de l'Equipment Aquitaine* izenekoaren ordezkariek entzunaldiak egin zituzten. Parte hartzeko aukera izan zen.

### → Gasteiz, 2007ko urriaren 5a

Bilera egin aurretik urriaren 4an ARASUR Plataforma multimodala bisitatu zen Ribabellosan (Araba).

5eko bileran fluxuei buruzko informazio eskuragarria zabaldu zen eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko ordezkari bati entzun zitzaion. EAEn garraio-eskaeraren datuak aurkeztu zituen. Akitaniako EEGABk bere ekarpena egin zuen.

Entzun ondoren, lanak jarraitzeko programa eztabaidatu zen.

## Sare Transnazional Atlantikoa. STA/ATN

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta Espazio Atlantikoko eskualdeetako antzeko erakundeen Plataformaren kide da eta horri Sare Transnazional Atlantikoa deritza. Bere helburua eskualdeen artean proiektu- eta politika-proposamenak egitea da lehiakortasuna eta gizarte- nahiz lurralde-kohesioa sendotzeko. Halaber, adskripzio atlantikoa duten interes komuneko gaiak ikertu eta aztertzen ditu eta, ondoren, zabaldu eta erabakitzeko gaitasuna duten erakundeei luzatzen die, bereziki, Europako Elkarteari. Halaber, Sarean honako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sartuak daude; Kantabriakoa, Galiziakoa, Kanarietakoa, Ceutakoa, Akitaniakoa, Poitou-Charentesekoa, Britainiakoa, Pays-de-la-Loirekoa, Limousinekoa eta Erdialdeko Eskualdekoa, Galeseko Ekonomia Eztabaida Guneak, Lisboako Eskualdeko Enpresa Elkartea, AERLIS, Soldadura Institutua eta Qualidade, ISQ, eta Algarveko Sindikatuen Elkartea, USALGARVE/CGTP-IN.

2003-2006 denboraldian STAk FEDER-en finantzazioa izan zuen INTERREG IIIB Espazio Atlantikoa Ekimen Komunitarioaren bidez.

INTERREG IIIBren eta horren babesean zehaztutako jarduera-programaren indarraldia amaitu zenean, STAk etorkizunari buruz hausnarketari ekin zion eta ia 2007. ekitaldi osoa eman du horretan. Urtearen azkeneko hiruhilekoan etapa berriari buruzko erabakiak hartu dira.

STAk bere ibilbidearekin jarraituko du antolaketa-egitura sinplifikatuarekin eta bazkideek beren bitarteko materialak eta giza baliabideak erabiliz, lehen koordinazio-organoak egindako zereginak gauzatuko dituzte. 2007-2013 programazioaren denboraldi berriko programa komunitarioak abian jarri arte, lehenengo unean, finantzazioa erakunde bazkideen bitartekoen araberakoa izango da.

Xede horiez, STAren Antolaketa Gutunean aldaketa egokiak sartu dira.

Lan-gai bezala, itsasoko energia berriztagarriei buruzkoak hautatu dira eta bere potentziala osoosorik garatzeko zailtasun sozioekonomikoak eta juridiko-administratiboak landuko dira. Halaber itsas bioteknologia aztertuko da farmazian, elikaduran eta kosmetikan, besteak beste, aplikatzeko.

## 2007. URTEAN STAREN BILERAK

### → Madril, 2007ko otsailaren 13a

*STAn parte hartzen duten erkidegoetako EGABen bilera*

Erkidegoetako EGABek, hau da, STAko kideek, Erreinuko EGABn otsailaren 21ean egin beharreko STAren Orientabide Batzordea prestatzeko bilera izan zuen, ikuspuntuak bateratzeko eta landu beharreko puntuei buruz ikuspuntuak elkartzeko.

### → Santander, 2007ko otsailaren 21a

*Orientabide Batzordearen bilera*

Bileraren helburua STAn kooperazioaren esperientzia ebaluatzea eta Europako Espazio Atlantikoaren testuinguruan bazkideen arteko kooperazioa jarraitzeko erabakiak hartzea izan zen.

STAko bazkideek aho batez eta zalantzarik gabe STAk jarraitzearen aldeko apustua egin zuten; dena den, etorkizuneko funtzionamendurako STA hornitzeko egitura formalei buruz hausnarketa egiteko denbora-tartea ematea adostu zuten. Hala eta guztiz ere, hausnarketa eta jada STAn landutako gaietan sakontzea ez ziren bateraezinak.

Karguetan ordezkapena izan zen: Sir Roger Jones galestarrak STAn lehendakariaren kargua utzi zuen eta ISQko Joao Paulo Duartek hartu zuen. Frantziako lehendakariordetzan Britainiako Alain Evenek hartu zuen Limousineko Michel Delagrandannek utzitakoa; erkidegoetako EGABei dagokienez, Kantabriako EGABko Pablo Kotok hartu zuen kargua Kanarietako Fernando Redondoren ordez.

### → Oeiras, 2007ko ekainaren 12a

*Orientabide Batzordearen bilera*

Bileraren helburua honakoa izan zen: INTERREG programa berrien bidez finantzazioa lortzeko aukerak balioztatzea eta STAk jada landutakoekiko lan-gai osagarriak hautatzea, sarearen gobernu-egiturei buruzko hausnarketa-denboraldian garatzeko.

Batzordeak Berau izenekoari antolaketa- eta lan-proposamen zehatzak ikertu eta formulatzea eskatu zion eta erabakiak hurrengo bileran hartzea adostu zen.

### → Rennes, 2007ko uztailaren 19a

*STAren Bureauren bilera*

Bilera honetan STAren etorkizuneko antolaketari buruzko hainbat proposamen adostu ziren, baita STAren Antolaketa Gutunaren aldaketak eta INTERREG programa berrirako lehentasunezko arlo interesgarrietan lan-proposamenak ere.

### → Sukarrieta, 2007ko urriaren 9a

*STAren orientabide-batzordearen bilera*

STAko bazkideek Bureau eragileak planteatutako proposamenen dokumentua eztabaidatu zuten eta STA gobernatzeko modu berriari buruz erabakiak hartu zituzten: IEPKren Arku Atlantikoaren Batzordean partaidetza-modalitateak, STAren Antolaketa Gutunaren aldaketa eta sarearen lan-gaiak.

Bilera Azti-Tecnaliaren lokaletan egin zen.



## Itsas eskualde periferikoen konferentzia eta Arku Atlantikoaren batzordea

Elkartean Europako 157 itsas eskualde sartuak daude eta Europako Elkartearen garapen orekatua sustatzera bideratuta dago; horretarako, eskualde horiekiko komunak diren aktiboei balioa eman nahi zaie. Horrez gain, honako helburuak ditu: Europako integrazio-prozesuan eskualdeen inplikazioa lortzea eta Europako integrazioaren testuinguruan itsas eskualdeen eta eskualde periferikoen berezitasunekiko eta beharrekiko Europako agintariak sentsibilizatzea. Sei batzorde geografikoetan antolatzen da eta horietako bat Arku Atlantikoaren Batzordea da. Horren kide formalak dira atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak. Eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ikusle bezala joan arren, STAk berez eta modu autonomoan bere lanetan parte hartzeko ekimenak izan dira.

Euskadiko EGABk *Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusian* parte hartu zuen Gijonen ekainaren 20an. Antxon Lafont Euskadiko EGABko lehendakariak, STAren izenean, energia berriztagarrien eta itsas bioteknologiaren eremuan erakundearen lan-planak azaldu zituen. Halaber, saioan aurkeztutako itsas proiektuetan lankidetzan jarduteko aukera landu zuen.

Era berean, EGABk “*Itsasoaren Europa*” izenburuko IEPKren hitzaldietan parte hartu zuen. Terceiran egin ziren uztailaren 10ean eta 11n. “*Portuak eta Itsas Garraioa: eskualdeak nahi handiko politika komunitario orekatuaren alde”* izeneko hitzaldian izan zen Gijonen azaroaren 19an eta INTERREG IV Espazio Atlantikoa Programa aurkezteko hitzaldian Oporton abenduaren 14an; azkenik, Oporton abenduaern 15ean *Green Atlantic Sustainable Development Platform*, GASD, izeneko hitzaldia izan zen.

# 4

# Bitarteko materialen eta giza baliabideen kudeaketa

# 4

# Bitarteko materialen eta giza baliabideen kudeaketa

## 2007ko aurrekontua

2007. urterako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Gastu Aurrekontuak 1.912.605,58 €-ko hornidura izan zuen; finantzazioari dagokionez, 1.739.417,00 € EAEko Aurrekontu Orokorren kargura izan zen eta 145.188,58 € aurreko ekitaldietako soberakinen kargura; 28.000,00 € diru-sarrera finantzarioen kargura izan zen.

2007. urterako gastuen eta diru-sarreren ohiko aurrekontua hurrengo kapitulu handietan banatu zen:

| | AURREKONTUAN JARRITAKOA | GAUZATUA | MAILA |
|---|---|---|---|
| **GASTOAK 2007** | **1.912.605,58** | **1.489.116,55** | **77,86%** |
| I. kapitulua.- Langile-gastuak | 806.471,67 | 620.748,76 | %76,97 |
| II. kapitulua.- Funtzionamendu-gastuak | 736.611,17 | 628.094,04 | %85,27 |
| III. kapitulua.- Gastu finantzarioak | 60,00 | 0,00 | %0,00 |
| IV. kapitulua.- Transf. eta diru-lag. Gastu arrunta. Kideen transferentzia | 335.462,74 | 227.589,73 | %67,84 |
| VI. kapitulua.- Inbertsioak | 34.000,00 | 12.684,02 | %37,31 |
| **DIRU-SARRERAK 2007** | **1.912.605,58** | **1.489.116,55** | **%77,86** |
| IV. kapitulua.- Transf. eta diru-lag. Gastu Arrunta | 1.739.417,00 | 1.739.417,00 | %100,00 |
| Eusko Jaurlaritza | 1.739.417,00 | 1.739.417,00 | %100,00 |
| V. kapitulua.- Ondarearen diru-sarrerak. Diru-sarrera finantzarioak | 28.000,00 | 58.177,39 | %207,78 |
| Aurreko ekitaldietako soberakinak | 145.188,58 | -308.477,84 | %-212,47 |

Gastuen kitapenaren eboluzio historikotik ondoriozta daiteke erakundeak eta bere kontsulta-funtzioak aurrera egin duela eta finkatu egin dela:

**Euskadiko EGABren Gastuaren betetze-mailaren eboluzioa**




**Euskadiko EGABren gastuen betetze-mailaren eboluzioa kapituluka**



## Langileak batzordearen zerbitzura

Hamaika pertsona aritu ziren lanean EUSKADIKO EGABrentzat lan-arlo desberdinetan banatuak.

| | |
|---|---|
| → Ikerketak eta Proiektuak: | Arantza López de Munain<br>Arantza Unzurrunzaga<br>Leire Ozerin |
| → Prentsa: | Maje Saez (2007ko irailera arte) |
| → Documentazioa: | Begoña Etxebarria |
| → Administrazioa eta Zerbitzuak: | Gabriel Muro<br>Aitor Crespo |
| → Zuzendaritza Idazkaria: | Arantza Miñambres |
| → Zerbitzu Orokorrak: | Beatriz Cerezo<br>Ane Torres |

# Dokumentazio-zerbitzua eta Prentsa

5

# 5

# Dokumentazio-zerbitzua eta Prentsa

## Dokumentazio-zerbitzua

Kontsulta- eta ikerketa-funtzioak garatzeko, Euskadiko EGABk etengabe dokumentazioa eskatzen du eta oinarrizko bitartekoa da jarduerak garatzeko.

Dokumentazio Zerbitzuaren helburua oinarrizko dokumentu-azpiegitura kudeatzea da, Batzordeko kideei eta langileei ezagutzak eskaini eta lanak egiteko (irizpenak, memoriak, ikerketak, txostenak…) dokumentu-bitarteko interesgarriak lortzeko xedez

Helburu horrekin hurrengo zerbitzuak eskaintzen dira:

- → Dokumentuak lortzea.
- → Dokumentu-funtsa antolatu eta zaintzea.
- → Liburutegiko berrien aldizkaria egin eta e-mailez banatzea (astero).
- → Aldizkariak zirkulatzea (astero).
- → Bibliografia- eta dokumentu-bilaketak neurrira.
- → Gai interesgarriei buruz txosten monografikoak egitea.
- → Buletin elektroniko espezializatuak banatzea (gobernu-kontseiluaren akordioak, aktualitate parlamentarioa, SIIS, etab.)

Era berean, zerbitzu honek EGABk egindako irizpenak jarraitzen ditu eta bakoitzaren kasuan dagokion txostena egiten du.

## Argitalpenak

2007. urtean hurrengo aleak argitaratu eta banatu ziren:

- → 2006ko Jarduera Txostena. Argitalpen elebiduna, 750 ale.
- → 2006ko Txosten Sozioekonomikoa.
- → Argitalpen inprimatua gaztelaniaz, 1.300 ale.
- → Argitalpen inprimatua euskaraz, 350 ale.
- → 6 irizpen eta txosten baten argitalpen elebiduna. 800 aleko tirada.
- → Akitaniako EEGABrekin batera ikerketa: hurbiltasun-turismoa Akitaniako eskualdearen eta EAEn artean eta egonaldietako turismoa beste merkatuei bideratua: garapenerakoa ukerak eta baldintzak. Argitalpen elebiduna, 400 ale.




→ *Euskadiko EGABaren argitalpenak.*

# Web orria

2007. urtean, zehatz-mehatz esanda, maiatzean Euskadiko EGABren Web Orri berria abian jarri zen. Edukiak zabaldu, Batzordearen irudia eguneratu eta iristeko modua hobetzeaz gain, batzarkideentzat zati pribatu bat du. Horretan deialdien, bileren eta Batzordearen jardueren dokumentazio guztia dago.




→ *Euskadiko EGABaren web orria.*



# Prentsa

Batzordeak egin zituen Ikerketak, Irizpenak eta Txostenak, baita jarduera publiko interesgarriak (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakundeekin topaketak…) ere, Komunikabideei eta Euskal Herriko ingurune sozioekonomikoko iritzi-buruei bidaltzen zaizkie.

Erabakiak edo irizpenak direnean, Prentsa Oharra egiten da eta komunikabideei bidaltzen zaie. Eduki horiek guztiak Interneten eskura daude Euskadiko EGABren Web orrian “Notas de Prensa-Prentsa Oharrak” atalaren barruan.

Hedatu nahi diren edukiei emandako garrantziaren arabera, kazetariei bertan izatea eskatzen zaie.

Idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideetan EGAB eta bere jarduerak berri izan ziren ehun eta hogei alditan baina gehiagotan.

2007. urtean 4 prentsaurreko egin ziren eta 5 Prentsa Ohar bidali ziren.

## 2007. urtean egindako Prentsaurrekoak

### → 2007ko martxoaren 13a, Bilbo

Akitaniako EEGABrekin dagoen lankidetza-esparruan ikerketa bateratua aurkezteko prentsaurrekoa. Ikerketaren izenburua: *“Akitaniako eskualdearen eta EAEren artean hurbiltasun-turismoa eta egonaldietako turismoa beste merkatuei begira: garapen-aukerak eta -baldintzak*”. Bertan Akitaniako EEGABko lehendakaria, Jean François Gargou, eta Euskadiko EGABko lehendakaria, Antxon Lafont, izan ziren.

### → 2007ko ekainaren 22a, Bilbo

2006. urteko erakundearen Jarduera Txostena aurkezteko prentsaurrekoa. Antxon Lafont lehendakaria izan zen.

### → 2007ko irailaren 26a, Bilbo

“Euskal Herrian industria-politika eta deslokalizazioa” eztabaida aurkezteko prentsarekin topaketa. Data horretan bertan Euskalduna jauregian egiten ari zen.



→ *Euskadiko EGABaren Lehendakaria prentsaurrekoan.*



→ *Euskadiko EGABaren egoitzan ospatutako prentsaurrekoa.*

### → 2007ko urriaren 17a, Bilbo

2006ko Txosten Sozio-ekonomikoaren edukiak aurkezteko prentsaurrekoa. Euskadiko EGABko lehendakariak, Antxon Lafontek, eta txostenaren koordinatzaileak, Arantza Unzurrunzagak, parte hartu zuten.



→ *Euskadiko EGABaren egoitzan ospatutako prentsaurrekoa.*

## Prentsa-oharrak

2007. urtean adierazten diren datetan komunikabideei bost prentsa-ohar bidali zitzaizkien EGA-Bren lanak eta jarduerak hedatzeko:

- → 07/03/13: Akitaniako EEGABrekin batera turismoari buruz egindako ikerketa bateratua.
- → 07/05/15: Gizarte-baztertzearen kontrako legearen 5. aldaketaren legeari buruzko Aurre-proiektuaren eta kultura ekintzailea eta enpresen sorrera laguntzeko Dekretu Proiektuaren irizpenak.
- → 07/10/17: 2006ko Txosten Sozio-Ekonomikoa.
- → 07/10/18: 2010 Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planari buruzko txostena.
- → 07/12/18: Merkataritza Jardueraren Legeari buruzko bigarren aldaketaren legearen Aurre-proiektuari buruzko Irizpena.

## URTEKO PRENTSA-TXOSTENA

Prentsan, irratian eta telebistan Batzordearen jarduerari buruz hedatutako informazio guztiak biltzen ditu. Edukiarekin urtero komunikabideetan izandako Euskadiko EGABren agerpenen kronologia-txostena egiten da.

## HEMEROTEKA

Egunero txosten bat banatzen da gizarte eta lan arloko berriekin, horiek idatzizko prentsan argitaratu badira. Horrez gain, beste txosten bat egiten da eta irratiko nahiz telebistako informatiboak transkribatzen ditu.

## IKUSTE-ARTXIBOA

Batzordeak egindako ekitaldi eta bilera garrantzitsuenekin argazki digitalen artxiboa du. Noizean behin argazki horiek aldizkariei eta egunkariei eskaintzen zaizkie, beren lana errazteko.

# 6

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte arazoetarako batzordeari aplika dakiokeen legeria

# 6

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte arazoetarako batzordeari aplika dakiokeen legeria

3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzkoa (306. EAO, 1979-12-22koa) (32. EHAA, 1980-01-12koa)

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (141. EHAA, 1997-07-24koa)

1997ko abenduaren 18ko Bilkura Osoaren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena (10. EHAA, 1998-01-16koa)

# ERANSKIN BAKARRA:
2007ko Auditoria txostena

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España y al número S0204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

## INFORME DE AUDITORÍA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2007, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2007. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2007, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2007. Con fecha 23 de marzo de 2007 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2006, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2007 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2007, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2007, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.

Fdo.: Javier Angulo Gómez

INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

Miembro ejerciente: GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.

Año 2008 Nº 03/08/01831

IMPORTE COLEGIAL: 88,00 EUR

Este informe está sujeto a la tasa aplicable establecida en la Ley 44/2002 de 22 de noviembre.

Bilbao, 9 de Mayo del 2008